## BARRUNDIA

**3440**

**Ozetako 16. egikaritze unitatearen (EU) urbanizazio proiektua behin betiko onartzea.**

Alkatearen 2012ko ekainaren 5eko 126 ebazpenaren bidez behin betiko onartu zen Ozetako 1. poligonoko 127 eta 128 lurzatiek osatzen duten 16. E.U.aren urbanizazio proiektua.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da. Halaber, jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango dela Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Nolanahi ere, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso jar dezakete.

Dena den, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri aurretik, nahi izanez gero, argitaratzen den esanbidezko ebazpenaren aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman zuen organoari berari. Horretarako hilabete izango da, jakinarazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ozeta, 2012ko ekainaren 6a.– Alkatea, AFRO OLABE MARTINEZ.

## BARRUNDIA

**3440**

**Aprobación definitiva proyecto de urbanización de la U.E. 16 de Ozaeta.**

Por Resolución de Alcaldía número 126, de fecha 5 de junio de 2012, se aprobó definitivamente el proyecto de urbanización de la U.E.-16 de Ozaeta, integrada por las parcelas 127 y 128 del polígono 1.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, indicándose que este acto agota la vía administrativa y contra el mismo podrá interponerse Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de Lo Contencioso-Administrativo sito en Gasteiz, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al en que se publique el acto, sin perjuicio de que pueda interponerse cualquier otro que se tenga por conveniente.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se publica, podrá interponerse RECURSO DE REPOSICIÓN, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de UN MES que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la publicación del presente.

En Ozaeta, a 6 de junio de 2012.– El alcalde, AFRO OLABE MARTINEZ.

## BERANTEVILLA

**3395**

**Behin betiko onarpena ematea etxeak edateko urez hornitzeagatik eta saneamenduagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantzari**

Berantevillako Udalak behin betiko onartu du etxeak edateko urez hornitzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantzaren espedienteari, espediente hori jendaurrean egon den bitartean (2012ko urtarrilaren 18ko ALHAO, 7. zk.) erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero.

Hauxe dio hitzez hitz behin betiko onartutako zerga ordenantzak:

### ZERGA ORDENANTZAREN PROPOSAMENA, BERANTEVILLAKO INDUSTRIALDEAN EDATEKO UREZ HORNITZEAGATIK ETA SANEAMENDUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEKO

I. XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua.

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, beheko sarea edateko urez hornitzeko zerbitzuagatik kobratu beharreko tasa ezartzen eta eskatzen du, ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

II. TASA ORDAINTZEKO BETEBEHARRA

2. artikulua.

Tasa ordaindu beharra daukate udal honen beheko sareko ura banatzeko eta saneamendurako instalazio eta zerbitzuak erabiltzen dituztenek; udalak Tropegarain Urkidetzatik jasotzen du goiko sareko hornidura, partzuergo horretako kide baita.

III. ZERBITZUA

3. artikulua.

Erabiltzaileen edo harpidedunen eta toki administrazioaren arteko harremanak ekonomiko-administratiboak izango dira, zerbitzuak erabiltzen duen kudeaketa sistema edozein dela ere, eta herritarren beharrak asetzeko erabiltzen dituen langileak eta instalazioak zerbitzura atxikitzeko era zeinahi dela ere.

## BERANTEVILLA

**3395**

**Aprobación definitiva de la ordenanza fiscal reguladora de la tasa por suministro domiciliario de agua potable y saneamiento.**

El Pleno del Ayuntamiento de BERANTEVILLA ha aprobado definitivamente el expediente de establecimiento de la Ordenanza Fiscal de la Tasa por suministro domiciliario de agua potable, toda vez que durante el periodo de exposición pública de dicho expediente, anunciado en el BOTHA número 7, de 18 de enero de 2012, no se presentaron reclamaciones contra el mismo.

La Ordenanza Fiscal, en su aprobación definitiva, dice literalmente:

### PROPUESTA DE ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR SUMINISTRO DE AGUA POTABLE Y SANEAMIENTODE LA ZONA INDUSTRIAL DE BERANTEVILLA

I. DISPOSICIÓN GENERAL

Artículo 1.

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Álava, establece y exige la tasa por suministro en red de baja de agua potable con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen las tarifas aplicables.

II. OBLIGACIÓN DE CONTRIBUIR

Artículo 2.

Están obligados a contribuir quienes utilicen los aprovechamientos de instalaciones y servicios de la red de distribución de agua en baja y de saneamiento de este Ayuntamiento, que recibe el suministro en alta del Consorcio de .Aguas de Tropegarain del que este Ayuntamiento es miembro .

III. DEL SERVICIO

Artículo 3.

Las relaciones entre los usuarios o abonados y la Administración Local tendrán carácter económico administrativo, cualquiera que sea la forma de gestión del Servicio que ésta escoja para la prestación del mismo, y con independencia de la fórmula de adscripción del personal y de las instalaciones que la misma utilice para satisfacer las necesidades de la población.

4. artikulua.

Udalak antolatuko du zerbitzua, eta publizitatea emango dio antolaketa horri; izendapen agiriak emango zaizkie zerbitzura atxikitako langileei, erabiltzaile guztiek ezagut ditzaten eta horren bermea izan dezaten. Zerbitzuaren obrak eta instalazioak jabetza publikoaren ondasunak dira, eta udalari dagokio ondasun horiek inbertsio planen bidez areagotzea. Plan horiek, betiere, zerbitzuaren ur emaria handitzea eta ur horien kalitatea hobetzea izango dute helburu.

5. artikulua.

Zerbitzuak ez du izango irabazteko xederik, baina mantendu egin beharko da aurrekontuaren oreka, Tropegarain Urkidetzak onartutako tarifa beregainak ezarrita.

IV. HARPIDETZA POLIZAK

6. artikulua.

Edateko uraren zerbitzua erabili nahi duen pertsona edo entitate orok zerbitzuaren bulegora jo beharko du, eta bertan emango diote horniduraren baldintzen berri; interesdunak harpidetza poliza bete beharko du kontsumo mota bakoitzerako propio ezarrita dauden inprimakietan. Eskaera egiten duena finkaren jabea ez bada, jabearen baimen idatzia aurkeztu beharko du.

7. artikulua.

Ez da inolako ur hornidurarik egingo, harik eta erabiltzaileak dagokion harpidetza poliza sinatu arte.

8. artikulua.

Zerbitzuak harpidedunekin izenpetuko du beti hornidura kontratua; hala ere, beharrezko baimenak eman dakizkioke ezinbestekoak diren instalazioak jartzeko, instalazio horiek jarri behar diren finken jabeak edo finka daukatenak harpidedunak ez badira.

9. artikulua.

Harpidetza polizak ez du epemugarik izango, baina erabiltzaileak, zerbitzua utzi nahi izanez gero, baja eman baino hilabete lehenago jakinarazi beharko du hornidura kontratua bukatutzat eman nahi duela.

10. artikulua.

Zerbitzuan baja eman ondoren hornidura berriro kontratatu nahi izanez gero, beste harpidetza poliza bat izenpetu beharko da.

V. HORNIDURA

11. artikulua.

Zerbitzuak harpidedunarekin batera ezarriko du –higiezinaren, lokalaren edo urez hornituko den bulegoaren baldintzak kontuan hartuta– zeintzuk izango diren horniduraren gutxieneko ur emaria, instalazioaren neurriak eta ezaugarriak, eta kontagailuaren ahalmena.

12. artikulua.

Erabiltzaileak ezin izango du aldatu jasotzen duen uraren erabilera, ez badu aldez aurretik izenpetu beste helburu horretarako harpidetza poliza. Erabiltzaileak ezin izango du, era berean, funtsezko aldaketarik egin instalazioaren ezaugarrietan, ez eta kontagailua bere kabuz aldatu edo beste batez ordezkatu ere; ezin izango die, orobat, urik eman beste pertsona edo erakunde batzuei, ez eta hornidura banatu ere harpidedunaren ustezko maizter edo errentarien artean.

13. artikulua.

Modu hauetara hornitu ahalko da edateko uraz:

1. ETXEKO erabilerarako kontagailua, hau da, elikadurarakoa eta norberaren garbiketa eta higienerakoa.

2. INDUSTRIAKO erabilerarako kontagailua:

a) Ura higiene garbiketarako bakarrik erabiltzen duten industria eta saltokiak.

b) Ura osagai edo lehengai gisa erabiltzen duten industriak (okindegiak, izotz fabrikak, granjak…), hau da, ura fabrikazio prozesuan erabiltzen dutenak.

Artículo 4.

La Ayuntamiento organizará el Servicio y dará publicidad a la organización del mismo, otorgando credenciales a las personas adscritas al mismo para conocimiento y garantía de todos los usuarios. Las obras e instalaciones del Servicio son bienes de dominio público, correspondiendo a la Ayuntamiento el incremento de estos bienes mediante planes de inversiones que tiendan en todo momento a aumentar el caudal de las aguas destinadas al Servicio y a perfeccionar la calidad de las mismas.

Artículo 5.

Queda excluido el ánimo de lucro en la prestación del Servicio, debiendo mantenerse el equilibrio presupuestario mediante la aplicación de tarifas autosuficientes aprobadas por el . Consorcio de .Aguas de Tropegarain.

IV. DE LAS PÓLIZAS DE ABONO

Artículo 6.

Toda persona o entidad que desee hacer uso del Servicio de Abastecimiento de Agua Potable acudirá a la Oficina del Servicio donde será informado de las condiciones del suministro, cumplimentando la correspondiente póliza de abono en los impresos destinados a este fin para cada clase de consumo. Acompañarán autorización por escrito, del propietario de la finca, caso que éste fuese distinto del peticionario.

Artículo 7.

No se llevará a cabo ningún suministro sin que el usuario de agua haya suscrito la correspondiente póliza de abono.

Artículo 8.

El Servicio contratará el suministro siempre con sus abonados, a reserva que le sean concedidos los permisos necesarios para poder efectuar las instalaciones indispensables a su cargo, en caso de no ser los abonados propietarios y poseedores de las fincas donde se han de colocar las citadas instalaciones.

Artículo 9.

La póliza de abonado se suscribirá por tiempo indefinido, viniendo obligado el usuario a comunicar su deseo de dar por terminado el contrato de suministro con un mes de antelación a la fecha en que haya de causar baja en el Servicio.

Artículo 10.

La reanudación del suministro después de haber causado baja en el Servicio sólo podrá efectuarse mediante la suscripción de una nueva póliza de abono.

V. DEL SUMINISTRO

Artículo 11.

El Servicio fijará conjuntamente con el abonado, teniendo en cuenta las condiciones del inmueble, local o dependencia que deba abastecer, el caudal mínimo que regirá el suministro así como las dimensiones y características de la instalación y la capacidad del contador.

Artículo 12.

El usuario no podrá cambiar el destino del agua suministrada sin la suscripción previa de la póliza de abono que corresponde al cambio de destino. Tampoco podrá el usuario variar sustancialmente las características de la instalación ni cambiar o sustituir por su cuenta el contador, ni suministrar aguas a otras personas o entidades, ni repartir el suministro entre supuestos inquilinos o arrendatarios del abonado.

Artículo 13.

Las formas que se establecen para el suministro de agua potable son:

1. Por contador para uso DOMÉSTICO, o sea destinado a la alimentación, aseo e higiene personal.

2. Por contador para usos INDUSTRIALES:

a) Industrias y Comercios que utilizan el agua solamente en limpiezas de higiene.

b) Industrias que utilizan el agua como componente o materia prima (panaderías, fábricas de hielo, granjas, ...) o sea en el proceso de fabricación.

Aurrekoetan ataletan sartzen ez diren erabileren kasuan, berdin dio industriako erabilerarako, erabilera publikorako zein etxerako diren, zerbitzuak kasu bakoitzean proposatuko du, eman zaizkion datuen arabera, zein den ezarri beharreko ur emaria, eta emari horren arabera zehaztuko dira baldintzak eta tarifak.

14. artikulua.

Zerbitzua ez dago behartuta nekazaritzarako ura ematera, ezta lore ustiapenetarako, lorezaintzarako edo zuhaiztietarako eta igerilekuetarako ere. Harpidetza poliza horiek bakar-bakarrik baimendu litezke zerbitzuak hornidura horietarako beharrezkoak diren ur emari handiak baditu; kasu horietan, industriarako tarifaren arabera kobratuko da kontsumoa.

15. artikulua.

Harpidedunei etengabe eskainiko zaie ur hornidura. Zerbitzuak ezin izango dio ur hornidura eten harpidedunari, ordenantza honetan ezartzen diren kasuetan izan ezik.

16. artikulua.

Aurreko artikuluan ezarritakoari dagokionez, honako hauetan eten ahal izango da hornidura:

1. Hornitzea ezinezko bihurtzen duen matxuraren bat gertatzen bada zerbitzuaren edozein instalaziotan.

2. Ur emari erabilgarria galtzean edo gutxitzean, horrek ur horniduran, ur bilketan edo uraren presioan nolabaiteko gabezia sortzen badu.

3. Kontsumoa handitzean, baldin eta horrek dauden horniduren eta kontsumo beharren artean desoreka sortzen badu, harik eta hornidura horiek handitu arte.

4. Hornidura baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren instalazioetako obrek, konponketek edo hobekuntzek irauten duten bitartean.

17. artikulua.

Zerbitzuak, egoera bakoitzaren larritasunaren arabera, ahalik eta azkarren ohartaraziko die eragina jasango duten harpidedunei hornidura berehala eten edo murriztuko duela, baita zerbitzua etenda egongo den denbora zehaztu ere. Larrialdi kasu garbietan edo ezinezkoa izan denean utz dezake alde batera zerbitzuak irregulartasunaren berri duen unean bertan ohartarazpena egin gabe; horrelakoetan, gerora egin beharko du, etenaren arrazoien eta ustez iraun lezakeen denboraren berri emanez.

VI. HARTUNEAK

18. artikulua.

Hartunea da ura eramaten duen adarra, hurbilen dagoen banaketa hoditik hornitu nahi den higiezinera. Adar horrek ezaugarri espezifikoak dituen hobi eroale bat izango du, hornitu beharreko ur kopuruaren arabera; ur hartune bakar batetik askotariko hornidurak egin daitezke finka berera.

19. artikulua.

Adarraren edo hartunearen ezaugarriak, haren instalazioa, zainketa eta mantentze lanak erabiltzaileak kontratatuko ditu zerbitzuarekin, edo higiezinaren egileak edo etxebizitzaren jabeak, baina beti egingo da toki administrazioaren aginpide teknikoaren menpean.

Adarra edo hartunea zerbitzuaren ikuskaritza teknikoaren menpean egongo da, eta eskatzailearen kontura izango da.

Eraikinak banaketa sarerik ez dagoen eremuetan egiten badira, eta obrak egiteko baimena udalak eman badu, sare berria eskatzailearen kontura izan dadila eska daiteke, baina zerbitzuaren ikuskatze teknikoaren menpe egin beharko da.

Aurrekoa kontuan izanik, hartune guztiek bide publikoan izango dute erregistro giltza, eta zerbitzuak bakarrik erabili ahal izango du. Giltza hori ezin izango dute erabili ez harpidedunek, ez jabeek ezta hirugarren pertsonek ere. Higiezinen fatxadetan edo kontagailuen armairuetan jarriko da ixteko giltza, eta “irekita” edo “itxita” posizioetan zigilatua egongo da. Debekatuta dago hori erabiltzea, salbu eta instalazioen barruan matxuraren bat gertatzen bada. Ixteko giltza hausten denean, berehala eman beharko zaio horren berri zerbitzuari;

Para suministros no encuadrados en los anteriores, ya sean de uso industrial, público o doméstico, el Servicio propondrá en cada caso, de acuerdo con los datos suministrados, el caudal que pudiera fijarse, a partir del cual se fijarán las condiciones y tarifas que procedan.

Artículo 14.

El Servicio no está obligado a suministrar agua para fines agrícolas, ni siquiera para las explotaciones de floricultura, jardinería o arbolado ni piscinas. Únicamente en el caso de que el Servicio dispusiera de los grandes caudales necesarios para este tipo de suministro, podrían autorizarse dichas pólizas de abono, tarifándose el consumo por la tarifa industrial.

Artículo 15.

El suministro de agua a los abonados será permanente. El Servicio no podrá cortar el suministro a ningún abonado salvo en los casos previstos en esta Ordenanza.

Artículo 16.

A los efectos derivados del artículo anterior, se establecen los siguientes casos justificados de corte o interrupción del suministro:

1. Avería en cualquiera de las instalaciones del Servicio, que haga imposible el suministro.

2. Pérdida o disminución del caudal disponible que provoque insuficiencia en la dotación, acumulación o presión del agua.

3. Aumento del consumo que ocasione desequilibrio entre las dotaciones existentes y las necesidades del consumo, mientras se proceda al aumento de dichas dotaciones.

4. Ejecución de obras o reparación o mejora de las instalaciones que sean necesarias para la perfección de las condiciones del propio suministro.

Artículo 17.

El Servicio comunicará por un medio de rápida y eficaz difusión que estime oportuno, según la urgencia de cada caso, la inmediata interrupción y el horario para las restricciones que se impongan a los abonados a quienes afecten las vicisitudes del Servicio. Sólo en casos de reconocida urgencia o fuerza mayor podrá prescindir de esta obligación de preaviso desde el momento en que el propio Servicio tenga conocimiento de la anomalía de que se trata, si bien deberá hacerlo a posteriori, dando cuenta de los motivos y la previsible duración del corte del suministro.

VI. DE LAS ACOMETIDAS

Artículo 18.

Se entiende por acometida el ramal que partiendo de la tubería de distribución más próxima conduzca el agua al inmueble que se desee abastecer. Este ramal estará formado por un tubo conductor de características específicas según el volumen de agua a suministrar, pudiendo efectuarse múltiples suministros a una misma finca con una sola acometida.

Artículo 19.

Las características del ramal o acometida, su instalación, conservación y manejo se contratarán por el usuario del Servicio o por el constructor del inmueble o por el propietario de la finca, pero serán siempre bajo la competencia técnica de la Administración Local.

El ramal o acometida se instalará bajo inspección técnica del Servicio y a cargo del peticionario.

Cuando se realicen construcciones en zonas que no exista red de distribución, la nueva red, caso de que la Ayuntamiento haya autorizado las obras, podrá ser exigida sea a cargo del peticionario, debiendo estar construida bajo inspección técnica del Servicio.

A estos efectos, todas las acometidas tendrán en la vía pública una llave de registro que se manejará exclusivamente por el Servicio, sin que los abonados, propietarios o terceras personas puedan manipular dicha llave. En la fachada del inmuebles, o en los armarios instalados al efecto, se instalará una llave de paso, la cual será precintada en cualquiera de sus posiciones de “abierta” o “cerrada”, quedando igualmente prohibido su manejo salvo en los casos de avería en el interior de las instalaciones, dándose inmediatamente

kontrakoa egitekotan, ordenantza honetan eta indarrean dauden xedapenetan ezarritako erantzukizuna eskatuko da.

20. artikulua.

Normalean, adar edo hartune bat egongo da finka, eraikin edo higiezin bakoitzari zerbitzua emateko. Higiezinaren zati bateko maizter edo errentari batek hornidura berezi edo banakakoa nahi badu, eta horretarako justifikaturiko arrazoirik badago, jar dezake hartune hori, baina udalak aldeko txostena eman ondoren.

21. artikulua.

Jabeek, eraikitzaileek edo erabiltzaileek ixteko giltzatik aurrera jarriko dituzte instalazioak, hau da, finkaren fatxadatik edo mugatik. Horrela, ur ihesik egonez gero, ura bide publikora isuriko da, eta ez ditu kaltetuko, ez higiezina, ez barnean dauden jenero edo instalazioak. Barne instalazioen ardura aipatutakoek izango dute.

22. artikulua.

Kontratua amaitutakoan edo deuseztatutakoan, adarra libre geratuko da jabearen esku; interesdunak bost egunen buruan adierazi behar dio administrazioari, era frogagarrian, adarra bide publikotik kentzea erabaki duela. Horrela egiten ez badu, adar hori ez zaiola interesatzen ulertuko da, eta udalak egoki iritzitako neurriak hartu ahal izango ditu.

VII. KONTAGAILUAK

23. artikulua.

Edateko uraren hornidurarako kontagailuak eraikin edo finka bakoitzaren kanpoko aldean jarriko dira, harpidedun bakoitzeko bat, eta denak toki egokian, erraz iristeko moduko lekuan eta eraikinaren aurrean jarrita dagoen ixteko giltzatik ahalik eta hurbilen. Horretarako, kontagailuak konpartimentu edo kutxa batean egongo dira, bateria deritzon sisteman edo antzekoren batean, zerbitzuko langileak egintza bakar batean eta erraz apuntatu ahal izan ditzan kontagailu guztien zehaztasunak. Ixteko bi giltzaren artean jarriko dira kontagailuak, matxurarik gertatuz gero, zerbitzuko langileek erraz kendu ahal ditzaten eta berriro jarri. Kontagailutik abiatuta, hartunea zuzenean joango da harpidedunaren instalazioetara, inolako adarrik gabe. Erabat debekatuta dago kontagailu bera harpidedun batek baino gehiagok erabiltzea.

24. artikulua.

Udalak ezarriko du harpidedunak erabili behar duen kontagailu mota, haren diametroa eta kokagunea, harpidedunak polizan deklaratu duen kontsumoaren arabera. Benetako kontsumoa eta aitortzen dena bat ez badatoz, Udalak kontagailu egokia jartzeko eskatuko dio harpidedunari, eta erabiltzailearen kontura izango da ordainketa.

Legez onartutako sistemetakoak izango dira kontagailu guztiak, eta ipini aurretik Industriako Lurralde Ordezkaritzak egiaztatuko ditu ofizialki. Jarri ondoren, eta nahiz eta erabiltzailearenak izan, zerbitzuko langileek bakarrik eskuztatu ahal izango dituzte; horretarako, behar bezala zigilatuko dira jartzen diren bakoitzean.

25. artikulua.

Kontagailua baldintza onetan mantendu behar da, zainduta eta funtzionamendu egoera onean. udalak beharrezkotzat jotzen duen egiaztatze oro egin dezake, bai eta egokitzat jotzen dituen konponketak ere. Konponezina den matxuraren bat gertatuz gero, hura aldatzera behartu dezake erabiltzailea.

26. artikulua.

Kontagailua harpidedunarena izango da, baina instalazioa udalaren zuzendaritza teknikoaren pean egingo da; matxuraren bat gertatuz gero, zerbitzuak izango du erabiltzeko eta konpontzeko eskumen osoa, baina konponketa harpidedunaren kontura izango da.

27. artikulua.

Iruzurra izango da harpidedunak zein udalaren baimenik ez duen pertsona orok egindako edozein manipulazio, dela kontagailuan, dela hartunean dela instalazioetan, baldin eta egiten bada ura kontagailutik pasa ez dadin edo egindako kontsumoa behar bezala ager ez dadin.

cuenta al Servicio de la rotura de los precintos, incurriendo en caso contrario en las responsabilidades derivadas de esta Ordenanza y demás disposiciones vigentes.

Artículo 20.

Normalmente existirá un ramal o acometida para dar servicio a cada finca, edificio o inmueble. Pero si un inquilino o arrendatario de parte del inmueble desease un suministro especial o independiente, existiendo una causa justificada, podrá efectuarlo previo el informe favorable de la Ayuntamiento.

Artículo 21.

Los propietarios, constructores o usuarios dispondrán las instalaciones a partir de la llave de paso, es decir, a partir de la fachada o límite de la finca, de tal forma que en caso de fuga de agua, ésta vierta hacia la vía pública, a fin de no dañar al inmueble o los géneros o instalaciones existentes en el mismo, bajo su exclusiva responsabilidad.

Artículo 22.

Terminado o rescindido el contrato, el ramal queda libre a disposición de su propietario; pero si éste, dentro del quinto día no comunica a la Administración en forma auténtica su decisión de retirarlo de la vía pública, se entenderá que se desinteresa del ramal, pudiendo la Ayuntamiento tomar las medidas que juzgue oportunas.

VII. DE LOS CONTADORES

Artículo 23.

Los contadores del suministro de agua potable estarán colocados en el exterior de cada edificio o finca, uno por cada abonado y todos ellos en lugar adecuado, de fácil acceso, lo más cerca posible de la llave de paso instalada frente al edificio de que se trate. A estos efectos, los contadores estarán en un compartimento o caja, mediante el sistema llamado de batería u otro similar, de tal forma que el empleado, lector del Servicio, pueda libremente anotar las indicaciones de todos los contadores en un solo acto. Los contadores irán colocados entre dos llaves de paso, a fin de que puedan ser retirados con toda facilidad y vueltos a colocar por los empleados del Servicio en caso de avería. A partir del contador, la conducción llevará directamente a las instalaciones del abonado sin ramificación alguna, quedando terminantemente prohibido el uso del contador por más de un abonado.

Artículo 24.

La Ayuntamiento fijará el tipo de contador que el abonado deba utilizar, su diámetro y emplazamiento, según el consumo declarado por el abonado en la póliza. Si el consumo real no correspondiese al declarado, la Ayuntamiento exigirá al abonado el cambio de contador adecuado, a costa del usuario.

Todos los contadores habrán de ser de sistemas legalmente aprobados y serán verificados oficialmente por la Delegación Provincial de Industria antes de su instalación. Una vez instalados, aún siendo propiedad del usuario, no podrá ser manipulado más que por los empleados del Servicio, a cuyos efectos serán debidamente precintados cuantas veces se proceda a su colocación.

Artículo 25.

El contador deberá mantenerse en buenas condiciones de conservación y funcionamiento, pudiendo la Ayuntamiento someterlo a cuantas verificaciones considere necesarias y efectuar en él las reparaciones que procedan, así como obligar al usuario a su sustitución en caso de avería irreparable.

Artículo 26.

El contador será propiedad del abonado, su instalación se realizará bajo la dirección técnica de la Ayuntamiento y su manejo y reparación, en caso de avería, será competencia exclusiva del Servicio, con cargo al abonado.

Artículo 27.

Constituirá defraudación cualquier manipulación que se efectúe por el abonado o personas no autorizadas por la Ayuntamiento en el contador, en la acometida o en las instalaciones conducentes a evitar que el agua pase por el contador o que éste marque con exactitud el consumo efectuado.

VII. BARRUKO INSTALAZIOAK

28. artikulua.

Kontagailutik aurrera, harpidedunak nahi duen eran bana dezake ura bere erabilerarako, eta nahi duen eran egin horretarako lanak, zerbitzuak eskulanean eta beharrezkoak diren materialetan parte hartu gabe; hala ere, zerbitzuak instalazioa ontzat eman beharko du, hornidura erabat ondo egin dela bermatzeko, eta eskatzaileari laguntza eta aholkua eman diezaioke egiten dituen eskaeretan.

Zerbitzuaren ikuskatze teknikoaren pean egongo da barruko banaketa, zuzen dagoela egiaztatu ahal izateko edozein momentutan, eta iruzurrak eta kontrataturiko kontsumoan gerta daitezkeen gabeziak saihesteko.

29. artikulua.

Harpidetza poliza bakoitzari dagokion barneko instalazioa ezin da egon lotuta beste jatorri bateko ezein sare, hodi edo banaketari. Era berean, ezin izango zaizkio lotu beste harpidetza poliza bati dagokion instalazioari, ez eta udalaren ura nahastu ere haren iritziz berme tekniko edo sanitariorik ez duen urarekin.

30. artikulua.

Erabiltzaileak, barne banaketarako, andel hartzaile, erregulatzaile edo erreserbakoak jar ditzake. Andel horiek txukun eta desinfektaturik mantendu behar dira, eta erabiltzaileak erantzungo du haiek sor dezaketen kutsaduragatik. Era berean, ura galtzea saihesteko sistema automatiko edo eskuzkoak edukiko dituzte, nahiz eta ur hori kontagailuak erregistratutakoa izan; horretan gauzak behar bezala ez zaintzea zerbitzua oztopatze gisa hartuko da.

31. artikulua.

Era berean, presio ekipoak edo bestelako artikulu teknikoak jar daitezke beren ezaugarriengatik hala komeni zaien higiezinetan, kontsumo aukerak orekatzeko hartune beretik ura hartzen duten harpidedunen edo barruko instalazio baten zati desberdinen artean.

Tresna horiek nahitaezkoak izango dira eraikin jakin batzuetan; hain zuzen ere, haien garaiera edo beste gorabehera berezi batzuk direla-eta edateko urez behar bezala hornitu ezin duten eraikinetan. Edozein prozedura tekniko erabiltzen dela ere, honako hastapen hau bermatu behar da nahitaez: edateko ura higiezinaren sarrerako hartunean kokatuta dagoen ixteko giltzatik igaro eta berehala pasatuko dela kontagailu guztietatik, iruzur egiteko edo zerbitzua oztopatzeko aukerarik egon gabe eta aplikazio horrek sare nagusiko beste ezein harpideduni eragin gabe.

IX. KONTSUMOA

32. artikulua.

Harpidedunak harpidetza polizan ezartzen diren baldintzen eta ordenantza honetan horniketari buruz zehaztutakoaren arabera kontsumituko du edateko ura.

33. artikulua.

Kontagailuak erregistratzen duena hartuko da benetako kontsumotzat. Kontsumo hori arauzko minimoa baino txikiagoa denean, minimo hori hartuko da kontsumitutzat, edozein dela ere kontagailuak markatzen duen zenbakia.

34. artikulua.

Kontagailuak matxuraren bat duelako edo ondo ez dabilelako ezin bada jakin zenbat ur kontsumitu den, ulertuko da aurreko urteko aldi berbereko ordainagirian agertzen dena kontsumitu dela eta, horrelakorik egon ezean, azken hiru ordainagirien batez bestekoa. Oro har, benetan kontsumitu dena zenbatesteko ahalegina egingo da, baina sistema hori salbuespenezkoa izango da, eta aldi baterakoa. Horrelakoetan, udalari dagokio kontagailua ahal bezain pronto aldatzea, eta erabiltzaileari antzeman dituen akatsak zerbitzuari lehenbailehen jakinaraztea.

35. artikulua.

Erabiltzaileren bat kontagailuak erregistratzen duen kontsumoarekin ados ez badago, udalak kontagailua aztertzeko eta egiaz-

VII. DE LAS INSTALACIONES INTERIORES

Artículo 28.

A partir del contador, el abonado podrá distribuir las aguas para su uso y ejecutar los trabajos libremente sin intervención del Servicio en la mano de obra ni en los materiales necesarios, aun cuando aquél deberá dar su conformidad a la instalación para garantizar la perfección del suministro y pudiendo auxiliar al peticionario, asesorarle y ayudarle en cuantas cuestiones le fueran solicitadas.

La distribución interior del abonado estará sometida a la inspección del Servicio, a fin de verificar en todo momento la corrección de la misma y evitar defraudaciones y deficiencias en el suministro contratado.

Artículo 29.

Las instalaciones interiores correspondientes a cada póliza de abono no podrán estar empalmadas con red, tubería o distribución de agua de otra procedencia. Tampoco podrán empalmarse con la instalación procedente de otra póliza de abono, ni podrá mezclarse el agua de la Ayuntamiento con otra que no se tenga garantía técnica ni sanitaria, a juicio de la misma Ayuntamiento.

Artículo 30.

El usuario podrá instalar, como formando parte de su distribución interior, depósito receptores, reguladores o de reserva. Estos depósitos deberán mantenerse cuidadosamente limpios y desinfectados, respondiendo de las posibles contaminaciones causadas por dichos depósitos. Igualmente deberán estar dotados de los sistemas automáticos o manuales necesarios para evitar las pérdidas de aguas, aunque dicha agua haya sido registrada por el contador, considerándose la falta de cuidado en este aspecto como perturbación del Servicio.

Artículo 31.

También podrán instalarse en los diferentes inmuebles cuyas características así lo aconsejan, grupos de presión o cualquier otro artículo técnico que tenga por objeto equilibrar las posibilidades de consumo a diferentes abonados servidos por una misma acometida, o a las diferentes partes de una instalación interior.

Estos aparatos técnicos serán obligatorios en aquellos edificios que por su altura y otras circunstancias excepcionales no puedan garantizar el suministro correcto del agua potable. En todos los casos, cualquier procedimiento técnico se efectuará de tal modo que quede garantizado el principio de que el agua potable pasará por los contadores inmediatamente después de la llave de paso instalada en la acometida a la entrada del inmueble, sin posibilidad alguna de defraudación ni perturbación y sin que la aplicación pueda afectar a la red general en otros abonados.

IX. DEL CONSUMO

Artículo 32.

El abonado consumirá el agua potable de acuerdo con las condiciones establecidas en la póliza de abono y con todo lo que se especifique en esta Ordenanza respecto a las características del suministro.

Artículo 33.

Se entenderá por consumo efectuado el registrado por el contador; cuando el consumo registrado sea inferior al mínimo reglamentario, se entenderá consumido dicho mínimo, con independencia de lo que marque el contador.

Artículo 34.

Si por avería o mal funcionamiento del contador no pudiera conocerse con exactitud el consumo efectuado, se entenderá consumido el mismo caudal que corresponde al recibo equivalente al año anterior, y, en su defecto, por el promedio de los tres recibos anteriores. En general se efectuará la estimación más ajustada a la realidad, pero este sistema tendrá carácter excepcional, meramente transitorio, correspondiendo a la Ayuntamiento efectuar la sustitución del contador con la debida rapidez y al usuario denunciar inmediatamente al Servicio las anomalías observadas.

Artículo 35.

En el caso de disconformidad por parte de un usuario sobre el consumo registrado por el contador, la Ayuntamiento solicitará la

tatzeko eskatuko dio Industria Ordezkaritzari. Erregistratutakoa ondo badago, gastuak harpidedunak ordainduko ditu; txarto badago, berriz, okerra zuzenduko da.

X. KOBRATZEKO KOPURUA

36. artikulua.

Kobratzeko kopurua arautzeko, ur kontsumoa eta horren erabilera hartuko dira kontuan, ordenantza honetako tarifen idazpuruetan ezarritakoarekin bat etorriz.

XI. TARIFAK

37. artikulua.

Udalak harpidedun bakoitzak egindako kontsumoa fakturatuko du, une bakoitzean dagokion ordenantzak onartutako tarifak zorrotz aplikatuta eta hornitzaileak, Tropegarain Urkidetzak, goiko sareko tarifan egin ditzakeen aldaketei lotuta.

38. artikulua.

Ur kontsumoa edozein dela ere, udalak honako hauen tasak eta prezioak ere kobratuko dizkio harpidedunari: kontagailuaren zainketa, hartuneak egitea, instalazioak ikuskatzea, bide publikoko obrak egitea, lotura eskubideak eta ordenantzak “Tarifak” izeneko epigrafean baimendutako beste edozein.

39. artikulua.

Eranskinean daude zehaztuta tasa horien tarifak.

40. artikulua.

Horniduraren zenbatekoa lau hilabete baino gehiagokoak ez diren aldietan fakturatuko zaio harpidedunari; udalak aztertuko du zenbat denborako aldietan fakturatu.

41. artikulua.

Aldeetako edozeinek eskritura publikoa egiteko eskatuz gero, harpidedunak ordainduko ditu gastuak (udalarentzako kopia kautoa barne), bai eta estatuaren, autonomia erkidegoaren, probintziaren edo udalerriaren aldeko edozein motatako zerga eta kontribuzioak ere, sortuak edo sortzeke daudenak, polizari dagozkionak zein, horren menpe egonik, eranskinetan eta oharretan agertzen diren kontsumoari buruzkoak.

42. artikulua.

Harpideduna behartuta dago, bere instalazioak zein udalarenak erabiltzean, kontratatutako ura era egoki eta arrazionalean kontsumitzera, gainerako erabiltzaileei kalterik eragin gabe.

43. artikulua.

Udalaren hornidura zerbitzuaren aurkako edozein arau hauste larri eginez gero, harpidetza poliza deuseztatu egingo da berehala, eta ur hornidura eten. Egintza horiek, bestalde, toki ogasunari egindako iruzurra ere izan daitezke.

44. artikulua.

Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, honako egintza hauek joko dira arau hauste larri:

1. Hitzartutako ur horniduraz abusatzea, justifikatutako arrazoirik gabe harpidedunaren ohiko jarduerarekin bat ez datozen ur emariak kontsumitzea. Ez da justifikaturiko arrazoi izango harpidedunaren instalazioetan kontsumoa neurririk gabe handitzea eragiten duen matxura edo ur ihesa egotea.

2. Horniduraren erregulartasuna erabilera txarren bidez oztopatzea, murrizketen edo hornidura mugatuen garaian erabilera horiek beste erabiltzaile batzuen hornidura eragotz badezakete.

3. Urari polizan adierazitakoaz besteko erabileraren bat ematea.

4. Zerbitzuaren baimenik gabe ura hirugarrenei ematea, dela dohainik, dela kostu bidez.

5. Zerbitzuaren ura beste aprobetxamendu batzuetatik ateratzen denarekin nahastea, nahasketak kutsadura arriskua sortzen badu.

6. Zerbitzuaren baimenik gabe zerbitzuko langileei ordaintzea, baita langile horiek harpidedunari egindako lanengatik denean ere.

7. Langileei sartzen ez uztea harpidedunaren instalazioak, ur hartuneak edo kontagailuak dauden lekuetara, baldin eta zerbitzuari iruzur egin zaiola edo zerbitzua oztopatu dela susmatzeko arrazoirik badago.

revisión del mismo y su verificación por la Delegación de Industria, siendo los gastos de cuenta del abonado en el caso de que la verificación resultase conforme a lo registrado, y procediéndose, en caso contrario, a la rectificación que proceda.

X. BASES DE PERCEPCIÓN

Artículo 36.

Las bases de percepción se regulan por los consumos de agua y por el destino de los mismos de acuerdo con los epígrafes de las tarifas de esta Ordenanza.

XI. DE LAS TARIFAS

Artículo 37.

El consumo efectuado por cada abonado será facturado por la Ayuntamiento aplicando estrictamente las tarifas aprobadas en cada momento por la correspondiente ordenanza y sujeto a las modificaciones de la tarifa en alta que efectúe el suministrador, el Consorcio de Aguas de Tropegarian.

Artículo 38.

Independientemente del agua consumida, la Ayuntamiento facturará también al abonado el importe de las tasas y precios que correspondan por la conservación de contadores, ejecución de acometidas, verificación de instalaciones, obras en la vía pública, derechos de empalme y cualquiera otros autorizados por la ordenanza dentro del epígrafe general denominado tarifas.

Artículo 39.

Las tarifas de estas tasas son los que figuran en el Anexo.

Artículo 40.

La facturación del importe del suministro al abonado se efectuará por períodos no superiores a los cuatro meses, estudiándose por la Ayuntamiento.

Artículo 41.

Los gastos de escritura pública, si cualquiera de las partes exigiere su otorgamiento, incluyendo una copia auténtica para la Ayuntamiento, así como los impuestos y contribuciones de cualquier clase, creados o por crear, en favor de Estado, Comunidad Autónoma, Provincia o Municipio, devengados, tanto por razón de esta póliza como en ocasión del consumo que bajo la misma se efectúe sus anexos e indicaciones, serán por cuenta del abonado.

Artículo 42.

El abonado está obligado a usar de las instalaciones propias y de las de la Ayuntamiento consumiendo el agua contratada en forma racional y correcta, evitando perjuicios al resto de los usuarios.

Artículo 43.

Toda falta grave cometida en el uso del agua potable del abastecimiento municipal dará lugar a la inmediata rescisión de la póliza de abono, con interrupción del suministro, sin perjuicio de que los hechos puedan constituir defraudación de la Hacienda Local.

Artículo 44.

A los efectos de lo dispuesto en el artículo anterior, constituirá falta grave la comisión de los siguientes actos:

1. Abusar del suministro concertado, consumiendo caudales desproporcionados con la actividad normal del abonado, sin causa justificada. No será causa justificada la existencia de avería o fuga en las instalaciones del abonado que determine el aumento desproporcionado del consumo.

2. Perturbar la regularidad del suministro mediante usos anormales cuando en época de restricciones o abastecimientos racionados dichos usos puedan impedir el suministro a otros usuarios.

3. Destinar el agua a usos distintos del pacto.

4. Suministrar agua a terceros sin autorización del Servicio, bien sea gratuitamente o a título oneroso.

5. Mezclar agua del Servicio con las procedentes de otros aprovechamientos, si de la mezcla resultare peligro de contaminación.

6. Remunerar a los empleados del Servicio, aunque sea con motivo de trabajos efectuados por éstos en favor del abonado, sin autorización del Servicio.

7. Impedir la entrada del personal al lugar donde estén las instalaciones, acometidas o contadores del abonado, cuando existe indicio razonable de posible defraudación o perturbación del Servicio.

8. Kontratuaren epea amaitutakoan edo kontratua deuseztatutakoan ere ura kontsumitzen jarraitzea.

9. Justifikaturiko arrazoirik gabe ixteko giltzak ireki edo ixtea, zigilaturik egon ala ez.

10. Instalazioak manipulatzea, benetan zenbat ur kontsumitu den erregistratu ez dadin kontagailuetan.

11. Kontsumitu den ura edo edateko uraren kontsumoarekin lotutako eskubide eta tasak ordaintzeari uko egitea, justifikatutako arrazoirik gabe. Justifikatu gabeko arrazoitzat jotzen da ordainketa hiru hilabete baino gehiago atzeratzea, ordaindu beharreko diru kopuruari edo beste edozein gairi buruzko erreklamazio arrazoituren bat erabakitzeke ez badago.

45. artikulua.

Udalak indarrean dagoen legeriak baimentzen dituen isunak jarriko ditu aurreko artikuluan aipatutakoak bezain larriak ez diren egite edo ez-egiteak zigortzeko.

46. artikulua.

Iruzurrei espedientea abiaraziko zaie, toki administrazioak xedatzen duenaren arabera izapidetuko dena.

Delitutzat jotzen diren egintzak, hala nola, zigiluak apurtzea, instalazioak suntsitzea, urak kutsatzea eta Zigor Kodean jasotzen diren besteak, jurisdikzio arruntaren aurrean salatuko dira.

47. artikulua.

Indarrean dauden legeek xedatzen duten premiamendu bidean egongo dira zordunak.

Edateko uraren hornidura ordaintzeari behin eta berriro uko egiten bazaio, hornidura eten egin ahal izango da, horren gaineko legeak dioenaren arabera.

48. artikulua.

Harpidedunak baino ez du izango neurriz gain kontsumitu izanagatik hirugarren bati sortu diezaiokeen kaltearen erantzukizuna.

XII. XEDAPEN IRAGANKORRAK

Ordenantza hau indarrean sartzen denean sinatuta dauden kontratuak ordenantzan ezarritakora ofizioz egokituko dira, eta erabiltzaileak behartuta daude bertan zehazten diren arauak betetzera. Zenbait kasutan, hala ere, zerbitzuak errespeta ditzake harpidedunek aurretik dituzten eskubideak. Edonola ere, eskubide horiek iraungi egingo dira lehendik indarrean zegoen kontratua amaitzen denean.

Xedapen honen salbuespen gisa, kontagailuak baterian edukitzeko betebeharra adierazten da.

XIII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere eranskina, hor agertzen den datan behin betiko onartuak, 2012ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean eta hala jarraituko dute aldatu edo indargabetu arte.

XIV. ORDENANTZAREN ERANSKINA

Adarrak instalatzea. Zerbitzuaren ikuskatze teknikoaren menpe instalatuko da adarra edo ur hartunea, eta eskatzailearen kontura. Horretarako, higiezinaren fatxadaren ondoan, espaloian, utzi beharko du dagokion ixteko giltza; hortik abiatuko du instalazioa kontratistak edo jabeak izendatzen duen langile teknikariak.

Kontagailuaren ezaugarriak. Kontagailu guztiak izango dira Eusko Jaurlaritzak legez onartutako sistemetakoak, eta jarri aurretik ofizialki egiaztatuta egon behar dute.

Ura jasotzeko ekipoak. Ura jasotzeko ekipoek andel batetik xurgatuko dute ura, eta andelak higiezineko harpidedunei egun bateko kontsumoa bermatzeko adinakoa izan behar du. Andelaren sarreran kontagailu orokor bat instalatuko da, kontsumo guztiak erregistratzeko. Zatikako kontsumo guztien batuketak kontsumo orokorraren berdina izan behar du; horrela ez bada, komunitateari egotziko zaio aldea, flotagailuen edo ura jasotzeko ekipoaren andelaren galerak baita.

8. Continuar el consumo después de cumplido el plazo de contrato o rescindido el mismo.

9. Abrir o cerrar las llaves de paso sin causa justificada, estén o no precintadas.

10. Manipular en las instalaciones con objeto de impedir que los contadores registren el caudal realmente consumido.

11. Negativa injustificada a satisfacer el importe del agua consumida o los derechos y tasas relacionados con el consumo del agua potable. Se entenderá negativa injustificada, el retraso del pago superior a tres meses, si no existiere pendiente una reclamación fundada respecto a la cuantía o circunstancia de las cantidades no satisfechas.

Artículo 45.

Los hechos u omisiones que no revistieran la gravedad de los expuestos en el artículo anterior, serán sancionados por la Ayuntamiento con multas de la cuantía que autorice la Legislación vigente.

Artículo 46.

Los hechos que constituyen defraudación darán lugar a un expediente que se tramitará conforme a las disposiciones de Administración Local.

Los hechos que constituyen delito, tales como la rotura de precintos, la destrucción de instalaciones, la contaminación de las aguas y demás especificados en el Código Penal, serán denunciados a la Jurisdicción Ordinaria.

Artículo 47.

Los deudores quedan incursos en el procedimiento de apremio establecido en la Legislación vigente.

En caso de negativa reiterada en el abono de los recibos de suministro de agua potable, podrá efectuarse el corte del mismo de acuerdo con lo legislado al respecto.

Artículo 48.

El abonado será el único responsable de los daños y perjuicios que con ocasión del consumo abusivo efectuado pueda producir a terceros.

XII. DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Los contratos existentes a la entrada en vigor de esta Ordenanza se adaptarán de oficio a las disposiciones de la misma, quedando los usuarios obligados al cumplimiento de todas sus prescripciones, sin perjuicio de que en cada caso el Servicio proceda a respetar los derechos legítimamente adquiridos por los abonados. En todo caso, estos derechos se considerarán a extinguir a la terminación del contrato anteriormente existente.

Como excepción a la presente disposición se señala la obligatoriedad de la batería de contadores.

XIII. DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza con su Anexo, que fue aprobada definitivamente en la fecha que en éste se indica, entrará en vigor el 1 de enero de 2012 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

XIV. ANEXO DE LA ORDENANZA

Ejecución de los ramales. El ramal o acometida se instalará bajo inspección técnica del Servicio y a cargo del peticionario, dejando en la acera, junto a la fachada del inmueble, la correspondiente llave de paso, a partir de la cual proseguirá la instalación el contratista o industrial designado por el propietario.

Características del contador. Todos los contadores habrán de ser de sistemas legalmente aprobados por el Gobierno y serán verificados oficialmente antes de su instalación.

Grupos de sobre elevación. Los grupos de sobre elevación aspirarán de un depósito de dimensiones necesarias para garantizar el consumo durante un día a los abonados del inmueble. A la entrada de este depósito se instalará un contador general que registrará todos los consumos, siendo la suma de todos los parciales igual al del general; en caso contrario, la diferencia de consumo se efectuará a la comunidad, por ser pérdidas de los flotadores o depósito del grupo.

| TARIFAK | ZENBATEKOA |
|---|---|
| 1.- URAREN TASA (lauhilekoa) | |
| a) Etxeko erabilerak: | |
| Zerbitzu kuota: | 10,28 euro |
| - Kontsumo kuota (m3): <30 $m^3$ | 0’32 euro/$m^3$ |
| - Kontsumo kuota (m3): 30-60 $m^3$ | 0’39 euro/$m^3$ |
| - Kontsumo kuota (m3): 60-120 $m^3$ | 0’59 euro/$m^3$ |
| - Kontsumo kuota (m3) >200 $m^3$ | 1,50 euro/$m^3$ |
| b) Industriako erabilera: | |
| Zerbitzu kuota: | 43,96 euro |
| - Kontsumo kuota (m3): <120 $m^3$ | 0’48 euro/$m^3$ |
| - Kontsumo kuota (m3): 120-1000 $m^3$ | 0’61 euro/$m^3$ |
| - Kontsumo kuota (m3): >1000 $m^3$ | 0’93 euro/$m^3$ |
| c) Beste erabilera batzuk: | |
| Zerbitzu kuota: | 43,96 euro |
| - Kontsumo kuota (m3): <120 $m^3$ | 0’48 euro/$m^3$ |
| - Kontsumo kuota (m3): 120-1000 $m^3$ | 0’61 euro/$m^3$ |
| - Kontsumo kuota (m3): >1000 $m^3$ | 0’93 euro/$m^3$ |
| d) Hartune berriagatik ordaindu beharreko tasa: | 300,51 euro |

2.- HONDAKIN UREN SANEAMENDUA

| LAUHILEKO TARIFA | |
|---|---|
| Zerbitzuaren kuota: | 7,63 euro |
| Hartune berriagatik ordaindu beharreko kuota: | 240,40 euro |

Tarifa horiei BEZa (ehuneko 8) gehituko zaie, halaxe xedatzen baitu Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak.

Era berean tarifei KPIa gehituko zaie urtero.

Urtean hiru aldiz fakturatuko zaie polizaren titularrei.

Hartune berriko tasa, hartunea egiteko eskatu dutenek erakunde hornitzaileari ordaindu behar dioten konpentsazio ekonomikoa da. Erakunde hornitzaileari tasa hori ordainduko diote eskatutako hartunea egitean sortutako gastuak ordaintzeko, eta, orobat, banaketa sareak handitu, aldatu edo berritu eta hobetzearren, erakundeak egin beharreko inbertsioen balio proportzionala konpentsatzeko ere bai. Horretarako berdin izango dio hartunea eskatutako unean eta lekuan egin den zein beste une eta leku batean egin den. Inbertsio horiek banaketa-sistemak duen hornitzeko ahalmena mantentzeko egingo dira, hornidura berria aurrekoaren baldintza beretan eta aurretik zeuden banaketa-sistemei kalterik eragin gabe egingo da.

Berantevilla, 2012ko maiatzaren 31.– Alkate-lehendakaria, JUAN ANTONIO SANTAMARIA FAJARDO.

| TARIFAS | IMPORTE |
|---|---|
| 1.- TASA DE AGUA(cuatrimestral) | |
| a) Usos domésticos: | |
| Cuota de servicio: | 10,28 EUROS |
| - Cuota de consumo (m3): .hasta 30 $m^3$. | 0’32 EUROS/$m^3$ |
| - Cuota de consumo (m3): .de 30 a 60 $m^3$. | 0’39 EUROS/$m^3$ |
| - Cuota de consumo (m3): .de 60 a 120. $m^3$. | 0’59 EUROS/$m^3$ |
| - más de 200 $m^3$. | 1,50 EUROS/$m^3$ |
| b) Usos industriales: | |
| Cuota de servicio: | 43,96 EUROS |
| - Cuota de consumo (m3): .hasta 120 $m^3$. | 0’48 EUROS/$m^3$ |
| - Cuota de consumo (m3): .de 120 a 1000 $m^3$. | 0’61 EUROS/$m^3$ |
| - Cuota de consumo (m3): .desde 1.000 $m^3$. | 0’93 EUROS/$m^3$ |
| c) Otros usos: | |
| Cuota de servicio: | 43,96 EUROS |
| - Cuota de consumo (m3): .hasta 120 $m^3$. | 0’48 EUROS/$m^3$ |
| - Cuota de consumo (m3): .de 120 a 1000 $m^3$. | 0’61 EUROS/$m^3$ |
| - Cuota de consumo (m3): .desde 1.000 $m^3$. | 0’93 EUROS/$m^3$ |
| d) Tasa por nueva acometida: | 300,51 EUROS |

2.-SERVICIO DE SANEAMIENTO DE AGUA RESIDUAL

| TARIFA CUATRIMESTRAL | |
|---|---|
| Cuota por servicio: | 7,63 EUROS |
| Cuota por nueva acometida: | 240,40 EUROS |

Estas tarifas se verán incrementadas un 8 por ciento en concepto de IVA según el Articulo 91 del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, por el que se aprueba la normativa reguladora del impuesto sobre el valor añadido.

Las tarifas serán incrementadas en función del IPC anual.

Se facturará a todos los titulares de una póliza, tres veces al año.

La tasa por nueva acometida es la compensación económica que deberán satisfacer los solicitantes de una acometida a la entidad suministradora para sufragar los gastos a realizar por ésta en la ejecución de la acometida solicitada así como para compensar el valor proporcional de las inversiones que la misma deba realizar en las ampliaciones, modificaciones o reformas y mejoras de sus redes de distribución, bien en el momento de la petición, o en otra ocasión, en el mismo lugar o distinto a aquél del que se solicita la acometida, para mantener la capacidad de abastecimiento del sistema de distribución, en las mismas condiciones anteriores a la prestación del nuevo suministro, y sin merma alguna para los preexistentes.

En Berantevilla , a 31 de mayo de 2012.– El alcalde-presidente, JUAN ANTONIO SANTAMARIA FAJARDO.

## BILAR

**3418**

**Etxez etxeko zabor bilketarako 2012ko tasari hasierako onarpena ematea.**

Bilarko udalerri honetako alkate lehendakariak, Alkatetzaren 2012ko ekainaren 6ko ebazpen baten bitartez, etxez etxeko zabor bilketa zerbitzua emateko tasaren 2012ko ekonomia ekitaldirako errolda onartu zuen. Errolda hori jendaurrean jarriko da udal honetako Idazkaritzan hamabost egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera kontatuta, epe horren barruan interesdunek aztertu eta haren aurka egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Bilar, 2012ko ekainaren 6a.– Alkatea, GERARDO OLANO MEDRANO.

## ELVILLAR

**3418**

**Aprobación inicial de la tasa para la recogida domiciliaria de basuras 2012.**

Aprobado por el Alcalde–Presidente de este municipio de Elvillar mediante Resolución de la Alcaldía de fecha 6 de junio del 2012, el Padrón correspondiente a la Tasa por la prestación del Servicio de Recogida Domiciliaria de Basuras del ejercicio económico del 2012. Queda expuesto al público en la Secretaría Municipal de este Ayuntamiento por espacio de quince días hábiles, contados a partir del día siguiente, también hábil, al de la publicación de este edicto en el BOTHA, al objeto de que durante el expresado plazo puedan ser examinados y formalizarse contra los mismos las reclamaciones que se estimen pertinentes.

Elvillar, a 6 de junio de 2012.– El alcalde, GERARDO OLANO MEDRANO.